

Castellano **Euskera** Français

“Gure sagardo berria” ekarri du Astigarragak



Juan Martinez de Irujo pelotari txapeldun nafarra izan zen 2006ko sagardoaren aurkezpeneko protagonista nagusia, Sagardoetxean egindako ekitaldian, Astigarragako Sagardoaren Museoan. Bertan azaldu zen izaera orekatuko produktu berria, fruta gustukoa eta edan erraza. Txotx denboraldia Bereziartua

Sagardotegian hasi zen, urteko lehen txotxa irekita.

Bixente Arrizabalaga, Astigarragako Alkateak Kultur Etxean egindako aurkezpen hitzaldian esan zuen, Kultur Etxea etorkizun gertuko batean, Sagardoetxea izango dela bere osotasunean “eta horrek, hirigintza plangintzan, erabat estrategiko jotzen du proiektua”.

José Angel Goñi, Sagardoetxea eta museo guneak sustatzen dituen Sagardun Partzuergoko bozeramaleak sagardo berriaren ezaugarri nagusiak azaldu zituen “edari orekatua eta fruta gustu ukituak dituen, nagusiki”.

Edari edan erraza, eta izan dugun eguraldiak eraginda, aurreratu samar datorrena eta gaur egun puntu ezin hobean dagoena.

Goñik nabarmendu zuen sagardo-egileak ahalegin bereziak ari direla egiten sagarrondoan gaitz eta izurriteak kontrolatzeko, eta horrek dakarkiela uztaren gaineko kontrol handiago bat, eta azken batean, urtez urte kalitate handiagoko sagardoa egitea.

Sagardoetxeak, Euskal Sagardoaren Museoak

Sagardoetxea, kultura, turismoa eta gastronomia gunea.

Sagardoetxeko egoitza ondoan, sagardoaren museo eta interpretazio zentroa dago, fruta honen sekretu guztiak gordetzen dituen, munduan gehien zabaldua eta ugariena, eta generazio askotan euskaldunen sostengu izana.

Museo sagastia, Sagardoetxeko bigarren gune didaktikoa da eta Euskal Herriko sagar mota desberdinak ezagutaraztea nahi du, eta sagarrondoan kondukzio sistemak denboran barrena izan duten garapena erakutsi.

Sagardoetxeak kultur jardunaldi proposatzen dizkizu

Txotx bolada

Sagastiak loretan

Santa Ana: sagardoa eta herri kirolak

Sagar Uzta, festa Astigarragan

Tolareko lanak

Sagardoetxeak, Euskal Sagardoaren Museoak, zenbait kultur jardunaldi proposatzen dizkizu, aisialdia, turismoa eta gastronomia ezagutzeko, Euskal Herriko ohiturarik zaharrenetako bat gozatzeko aukera, natura ezagutu, errespetatu eta sagardotegietako bere eskuzabaltasuna gozatzeko, kupel artean eta mahai eder baten bueltan.



Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!

Harpidetza

Sagardoaren museoa
Museo de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga · Gipuzkoa
Tel. 00 34 943 550 575
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com



EUSKADI
atzegiri honakuz
don muchu gusto

GIPUZKOA
NABE FORTAL, NABE HERREA
TUA PROTEKTA, TUA GRANDE

ASTIGARRAGA
Astigarragako Udala